

V. ERANSKINA: E TITULAZIO TALDEAREN MERITUEN BAREMOA

A BLOKEA: JARDUERA, GAITASUN ETA BETETZE PROFESIONALA: Gehienez, 85 puntu.

A blokea honako item hauek osatzen dute. Item horiek kargudunak ebaluatzen ditu profesionalak betetako eskabidean jasotako Ebaluaziorako Ekarpen Fitxak kontuan hartuta.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Lanbidean eguneratu eta hobetzea.	5 gradu ebaluatzen dira.	0-40
– Arazoak konpontzea.		0-15
– Hurrenkera eta baliabideen erabilera.		0-30
– Erabiltzailearekiko harremana eta gogobetetzea.		

B BLOKEA: PRESTAKUNTZA, IRAKASKUNTZA ETA EZAGUTZAREN HEDAPENA ETA BERRIKUNTZA.

Baremo honetan aipatutako merituen baloratze aldera, honako hau zehazten da:

– Ez dira meritutzat hartzen betetzen den lanpostuan egiten den ohiko lan, lan horren eduki propio eta espezifikoko jarduerak. Ebaluazio-batzordeak erabakiko ditu zein diren jarduerak horiek.

– Prestakuntza- edo irakaskuntza-jarduerak baten entitate antolatzailea jarduerak agindu eta kudeatzen duen entitatea da. Zuzenean eman dezake, edota beste erakunde batzuen bitartez. Edonola ere, erakunde antolatzailetzat honako hau hartuko da: bertaratuak jarduerak egin duela ziurtatzen duen erakundea eta/edo jarduerari dagokion titulazioak edo egiaztagiriak ematen dituen erakundea.

– Nazioarteko, estatuko edo autonomietako merituen baremoa egiaztagiritan zehaztutakoaren arabera izango da edo, horrelakorik ezean, gertakariak gutxienez lau herrialdetan barreiatzen direnean nazioartekoak direla esaten da, eta herrialde batean (bertako autonomia edo lurraldea) barreiatzen direnean, berriz, nazioartekoak direla.

– Konputurako gehieneko denbora-muga bat duten merituen, profesionalak parte hartzen duen deialdi bakoitzerako direla ulertu behar da.

PRESTAKUNTZA.

Atal honetan, egindako prestakuntza baloratuko da, betiere titulu ofizial bat lortzeko ikasketak-plan baterako prestakuntza ez bada.

Hurrengo erakundeek antolatu eta ziurtatutako etengabeko prestakuntza bakarrik hartuko da kontuan:

– Unibertsitateak eta Unibertsitate Eskolak.

– Ikastetxe publikoak (kontzertatuak barne, titulu ofizialak ematen dituztenean).

– Osasun Sistema Nazionaleko edo Europar Batasunekoetako organismo eta osasun zentroak eta Administrazioentitate eta organismoak.

– Elkargo Profesionalak, Elkarte Zientifikoak eta Profesionalen Elkarteak.

– Estatuko Administrazio publikoek izenpetutako Etengabeko Prestakuntzako Akordioen ondorioz emandako eta egiaztatutako ikastaroak.

Prestakuntza-jarduerak kredituen arabera puntuatzen dira, baldin eta honako hauek emandako

kredituak badira:

- Estatuko Unibertsitateen kredituak.
- Europako ECTS kredituak (Unibertsitateen kredituen 2,5 kreditu balio dute).
- Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen kredituak.

Jarduerak ez badu horrelako krediturik, jasotako prestakuntza-orduen arabera puntuatuko da (ez dira sartzen praktiketarako orduak edo titulazioa edo dagokion egiaztagiria lortzeko eska daitezkeen erakundeetan egindako egonaldi-orduek).

Titulazioa eta Etengabeko Prestakuntza:

Etengabeko prestakuntzat hartuko dira: behin oinarrizko titulazio edo dagokion espezialitatea atera ostean, gaitasun profesionala mantendu, areagotu edo hobetzeko prestakuntza-jarduerak; ikastaroak, mintegiak, tailerrak, etab...

Ez krediturik ez ordurik jartzen ez duten jarduerak irakastegunen arabera puntuatuko dira, baldin eta behar bezala ziurtatuta badaude. Eta ez krediturik, ez ordurik ezta egunik jartzen ez duten jarduerak egun bateko puntuazioa emango zaie.

Ez-presentziazko prestakuntzari gehienez 600 ordu/60 kreditu emango zaizkio urteko konputuan. Muga hori ez zaio aplikatuko Osakidetzako prestakuntza-programetan sartzen diren ikastaroei.

Deialdi honetan, Etengabeko Prestakuntza jardueragatiko gehieneko puntuazioa 25 puntukoa izango da.

Hurrengo lanbide garapenerako deialditik aurrera, gehienez 12 puntu emango dira presentziazko Etengabeko Prestakuntza jarduera bakoitzeko, eta 10 puntu ez-presentziazko Etengabeko Prestakuntza bakoitzeko, heziketa-programakoak direnean izan ezik.

Tituluak:

Lanpostuaz jabetzeko eskatzen ez diren bestelako titulazio akademikoak.	– Lizenziatura.	4,5 Puntu/Titulazioko.
	– Diplomatura.	4,5 Puntu/Titulazioko.
	– Goi-Mailako teknikaria.	3,5 Puntu/Titulazioko.
	– Teknikaria.	2,5 Puntu/Titulazioko.

Prestakuntza-ekintzak: Ikastaroak, tailerrak, mintegiak, etab...

Presentziazko prestakuntza, EPK kreditutan/Unibertsitate-kreditutan/Ordutan/Egunetan ziurtatua.	1,5 puntu/kredituko.
Ez-presentziazko prestakuntza, EPK Kreditutan ziurtatua/Unibertsitate kreditutan ziurtatua.	0,15 puntu/orduko. 0,75 ptu/eguneko*.
Ez-presentziazko prestakuntza. Ordutan/egunetan ziurtatua.	0,1ptu/ordua. 0,5 ptu/eguneko*.
IT Txartela ziurtagiriak.	0,7 puntu/ Txartela.

Bilera zientifiko-teknikoak.

Honako deialdi edo foroak hartuko dira bilera zientifiko-teknikotzat: lanbide baten edo ezagutza-eremu baten ezagutzak gaiarekin zerikusia duten profesionalen artean bereziki hedatu edo eztabaidatzeko diren deialdiak edo foroak: Biltzarrak, jardunaldiak, mahai-inguruak, sinposioak, etab...

Ez krediturik ez ordurik jartzen ez duten jarduerak irakastegunen arabera puntuatuko dira, baldin eta behar bezala ziurtatuta badaude. Eta ez krediturik, ez ordurik ezta egunik jartzen ez duten jarduerari egun bateko puntuazioa emango zaie.

Bilera zientifiko-teknikoak (Gehienez, 1,5 puntu/bilera bakoitzeko).

– Kreditutan ziurtatua (EPK/Unibertsitatekoak).	1,5 puntu/kredituko.
– Ordutan ziurtatua.	0,15 puntu/orduko.
– Egunetan ziurtatua.	0,75 ptu/eguneko*.

IRAKASKUNTZA ETA JAKINTZAREN HEDAPENA ETA BERRIKUNTZA.

Diziplina profesionaleko eta betetako lanpostuko eduki beretan, eta baita haiei lotutako tresna teknikoetan egindako irakaskuntza-jarduerak baloratuko dira.

Hurrengo erakundeek antolatu eta ziurtatutako jarduerak bakarrik hartuko dira kontuan:

– Unibertsitateak eta Unibertsitate Eskolak, Ikastetxe publikoak (kontzertatuak barne titulu ofizialak ematen badituzte).

– Osasun Sistema Nazionaleko edo Europar Batasuneko kideetako organismoak eta osasun-zentroak

– Administrazio erakundeak eta organismoak.

– Elkargo Profesionalak, Elkarte Zientifikoak eta Profesionalen Elkarteak.

– Estatuko Administrazio publikoek izenpetutako Etengabeko Prestakuntzako Akordioen ondorioz emandako eta egiaztatutako ikastaroak.

Komunikazio edo argitalpen baten egilezat hartzeko, «Vancouver-ko Arauak» delakoan zehaztutakoa hartuko da erreferentziatzat.

Graduondoko Irakaskuntza eta Etengabeko Prestakuntza.

Horren baitan graduondoko irakaskuntza-jarduerak eta etengabeko prestakuntzari lotutakoak sartzen dira: ikastaroak, tailerrak, saio kliniko orokorrak, etab...

Irakaskuntza. Etengabeko prestakuntza	Emandako ikastaroak.	1,4 puntu/orduko.
---------------------------------------	----------------------	-------------------

Bilera zientifiko-teknikoak.

– Txostena*.	Lehen egilea/txostengilea.		8 ptu/txosten bakoitzeko.
	Egile laguntzailea/ Moderatzailea.		5 ptu/txosten bakoitzeko.
– Ahozko komunikazioa, – Bideo-komunikazioa, – Poster-komunikazioa*.	Nazioarteko.	Lehen egilea/Txostengilea.	4 puntu/komunikazioko.
		Egile laguntzailea/ Moderatzailea.	2 puntu/komunikazio bakoitzeko.
	Estatukoa/eskualdekoa.	Lehen egilea/Txostengilea.	2 puntu/komunikazio bakoitzeko.
		Egile laguntzailea/ Moderatzailea.	1 puntu/komunikazio bakoitzeko.
– Dibulgazioko komunikazioak/parte-hartzeak lanbideko eremuan (hitzaldiak, etab...).			0,8 puntu/komunikazioko.

* Txostenek edo komunikazioek sari edo goraipamen bat jasotzen badute, euren puntuazioa %50 areagotuko da (moderatzailea alde batera utzita).

Argitalpenak.

– Artikuluak argitaratzea.	Nazioartekoa.	Lehen egilea.	8 ptu/artikulu bakoitzeko.
		Egile laguntzailea.	6 ptu/artikulu bakoitzeko.
	Estatukoa.	Lehen egilea.	6 ptu/artikulu bakoitzeko.
		Egile laguntzailea.	4 ptu/artikulu bakoitzeko.
	Eskualdekoa.	Lehen egilea.	4 ptu/artikulu bakoitzeko.
		Egile laguntzailea.	2,5 ptu/artikulu bakoitzeko.
– Liburuak (jardunaldi, biltzarretako.. txosten edo komunikazioak izan ezik).	– Osakidetzak argitaratutako liburuetan egile gisa parte hartzea. – Egile edo egilekide moduan parte hartzea ISBN edo Legezko Gordailua duten liburuetan edo liburuetako kapituluetan.		6 puntu/liburu-kapitulu bakoitzeko.

Jakintza Hedatzearekin lotutako bestelako merituak.

– Irakaskuntzako eta jakintzaren hedapenerako jarduerak antolatzea; ikastaroak, biltzarrak, jardunaldiak, mahai-inguruak eta abar...	Batzorde Antolatzaileko presidente/presidenteordea.	Puntuak/gertaera.	7
	Batzorde antolatzaileko kidea.	Puntuak/gertaera.	4
– Zerbitzu-erakundeak abalaturako edo ebalaturako proiektuak eta/edo azterketak eta bertako Gerentziak edo bere Zuzendaritza Kontseiluko kideek ziurtatuak.	Proiektuaren arduraduna/proiektu taldeko kidea.	Puntuak/proiektua.	4
– Landa-laneko kolaboratzailea.		Puntuak/proiektua.	2

C BLOKEA. ERAKUNDEAREKIKO INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA: Gehienez, 45 puntu.

C blokea «Taldea lana» eta «Egokitzeko gaitasuna» itemek osatzen dute. Kargudunak ebaluatzen ditu, profesionalak eskabidean betetako Ebaluaziorako Ekarpen Fitxak kontuan hartuta.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
Talde-lana.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 - 40
Egokitzeko gaitasuna.		

Organo, batzorde eta taldeetan parte-hartzea	Meritu ziurtatuak	Gehienez 5 puntu
<ul style="list-style-type: none"> - Lanbide Garapenerako Batzorde Korporatiboa. - Aldizkari Ofizialetan argitaratutako organo edo batzordeetan parte hartzeko izendapenak, Administrazioako Hautaketa-Epaimahaietan, Osasun Saileko Aholku Batzordeetan, ikasketak luzatzeko eta bilera zientifikoak antolatze laguntza-batzordean, Kontratazio Mahaietan... parte hartzeko izendapenak. - Hautaketa-epaimahaietan eta ebazpen bidez izendatutako beste organo batzuetan parte hartzeko izendapenak. - Osakidetzako langileen lan-baldintzen Akordioa aplikatzearen ondorioz sortutako organo, batzorde edo komisiotan parte hartzeko izendapenak. 	Presidente edo idazkaria.	2 puntu/epaimahahia-batzordea
	Kidea.	1 puntu/epaimahahia-batzordea.
	Presidente edo idazkaria/ Ordezkoa.	1 puntu/epaimahahia-batzordea.
	Kidea/ Ordezkoa.	0,5 puntu/epaimahahia-batzordea.
<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzu erakundeetako lanbide garapenerako Ebaluazio Batzordeak. 	Kidea (Gehienez, 5 puntu).	0,5 puntu/deialdiko.
	Ordezko kidea (Gehienez, 5 puntu).	0,3 ptu/deialdiko.
Erakundeetako beste batzorde batzuk: <ul style="list-style-type: none"> - Segurtasun eta Lan-Osasuneko Batzordea. - Euskarako Batzordea. - Mugikortasuneko Batzordea. - Erosketetarako Batzordea - Ingurumen Batzordea. - Langileak kontratatze Batzordea. - Osasun-arazoengatiko Lekualdatze Batzordea. 	kidea (Gehienez, 10 urte).	0,25 puntu/urteko.
	Ordezko kidea (Gehienez, 10 urte).	0,1 puntu/urteko.
<ul style="list-style-type: none"> - Osasun Sailak, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak edo Zuzendaritza Kontseiluko kideek izendatutako lan-taldeak. 	Kidea.	1,5 puntu/taldeko.
<ul style="list-style-type: none"> - Lan-taldeak (egonkorrak edo proiektu espezifikoak egiteko), Zerbitzu-Erakundeko gerente-zuzendariak edo bere Zuzendaritza Kontseiluko kideek izendatuak. 	Presidente/Idazkari/arduraduna.	1,5 puntu/taldeko.
	Kidea.	1 puntu/taldeko.
<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzu Erakundeko Gerentziak izendatutako Prozesuen jabeak (ZE-ko Prozesuen Mapan sartuta dauden prozesuak dira, eta Prozesuko Kudeaketa Metodologiaren arabera kudeatuak). 	Prozesuen jabeak.	2 puntu/ prozesuko.